

13/1988 LEGEA urriaren 28koa, Euskadiko Eskola-Kontseiluei buruzkoa (Huts-zuzenketa, EHAA 243 zk., 1988-12-28)

Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Eskola-Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei. Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet Euskadiko herritar guztiei, norbanako edo agintariak izan.

ZIOEN ADIERAZPENA

Konstituzioko 27.5 atalaren arauera, herri-agintariek, irakaskuntzarako egitarau orokorren bidez, doakien sail guztiak benetan partaide izanez, hezkuntzarako eskubidea bermatzen dute. Konstituzio-agindu hau Hezkuntzarako eskubideari buruzko oinarritzko legeko 27.1 atalean ia hitzez-hitz jasotzen da, lege horretako II Izenburuan gai honi buruzko irizpide nagusiak finkatzen direla.

Euskal Herrirako Autonomi Estatutuak, bere aldetik, Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzan herritar guztiek eskuhartu ahal izatea errazteko agindua ematen die herri-agintariei.

Hori bete-asmoz, eta irakaskuntzarekikoan Autonomi Estatutuko 16. atalak Euskal Herriko Autonomi Elkarteari aitortzen dizkion agintepideak egiteratuz, irakaskuntzaren egitaraugintzan gizartearen partaidetza bideratzeko izango diren bateango ihardutze-sailak, hots, Eskola-Kontseiluak, sortaraztea du xede Lege honek.

Gaur egun bizi gareneko demokraziatzko gizartean, hezkuntza-erapidetzan parte hartzea bazter ezineko beharra da; behar hori, eraginpeko sailek, Konstituzioak diotenari jarraiki, biziki sentitzen dutena da, gainera.

Lege honetan araututako Eskola-Kontseilu hauetaz baliatuz, alor edo sail hauetako bakoitzaren partaidetzak izan dezakeen sakabanaketa eta eraginkortasunik eza eragozteko lortuko da; horrela, gainontzekoen eritzien berririk izan gabe, banaka parte hartu eta eritzia eman beharrean, erakunde-mailako baliozko eta gizartea eta hezkuntza-bidea binomioa beharrezko den oreka azkartzailea eta barne-lotura ekarriko duen bidea izango dute.

AINTZIN-IZENBURUA

ERABAKI OROKORRAK

Lehenengo atala.– Euskal Autonomi Elkartek, unibertsitatekoaz besteko irakaskuntza-eremua doakien gizarte-sail guztiei, irakaskuntzako egitaraugintza nagusian partaide izateko eskubideaz benetan baliatu ahal izatea bermatzen die, Lege honetan finkatzen denaren arauera.

2. atala.– Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herri-agintariek, irakaskuntzako egitaraugintza orokorraren bidez, alor horretan izango dituzten ekintzapideen herritarren hezkuntza-beharrei erantzun ematera jozko egitamuketa eginez, hezkuntzarako eskubidea eta ikasketak egiteko askatasuna bermatuko dute.

3. atala.– Honako helburu hauek lortzea izango da batez ere irakaskuntzaren egitarauketa orokorraren xede:

a) Nortasuna bere osoan garatzeko eratutako hezkuntzarako eskubidearen eraginkortasuna bermatzea.

b) Ikasle-tokien eskaintza egokia eginez, herritarren hezkuntza-beharrak betetzen direla segurtatzea.

c) Eskola-erapidetza gizarte eta norbanako-mailako era guztietako ezberdintasunak berdintzeko tresna denez indartzea.

d) Irakaskuntzaren ontasun-maila hobetzea.

e) Euskal kondaira eta kulturaren ikerkuntza, zabalkundea eta ezagutza suztatzea.

f) Euskeraren normalkuntza eta erabilpena hezkuntza-eremuan bultzatzea.

g) Gizarteak hezkuntza-elkarteari egin diezazkion gaikuntzarako eskaintzak elkarri egokitu eta sartzea.

h) Ikastegiak daudeneko geografiazko, gizarte-ekonomiazko eta kulturazko inguruan erabat bertakotu daitezen bultzatzea.

Helburu hauek lortzeko eskola-elkarteko sail ezberdinek euren ordezkotza izango duten erakundeen bidez eskuhartzea bultzatuko da.

4. atala.– Honako alderdi hauek izango ditu, gutxienez, irakaskuntzako programazio orokorrak:

a) Hezkuntza-alarrean premiazkoen diren beharrak zehaztea.

b) Ekonomiazko plangintzari jarraiki, beharrezko baliabideak finkatzea.

c) Hezkuntza-alarrean lehentasuna duten beharrak zehazteko oinarrizko irizpideak eta, horiek direla eta, kontutan hartutako aldirako oinarrizko ekintza-helburuak.

d) Eskola-bilgunearen oinarrizko egitura finkatzea eta horiek sortzea, aldatzea edo kentzea.

e) Ikaspostuen plangintza eta sortzeko direnen programazioa arautzeko oinarrizko irizpideak, zein alde eta udaletan sortu behar diren zehaztuz.

f) Eskolako instalazioak eta hornidura zaindu, hobetu eta berritzeko ihardueren programazioa.

g) Irakaskuntzan aukera-berdintasuna lortzeko ihardueren, berdintzaile nahiz hezkuntza-integrazioa bultzatzeko, programazioa.

h) Itunpeko ikastetxeak herri-diruz finantzatzeko ihardueren programazioa.

i) Giza baliabidezko beharrak eta gizakiok prestatu eta trebatzeko iharduerak nahiz gela bakoitzari dagozkion baliabideak zehaztea.

5. atala.– Jaurlaritzak urtero gertatuko du, egon dauden ikastetxeen guztizko eskaintza kontutan izanez, hezkuntza-beharrei erantzun emateko, gizakizko eta gauzazko eskuartearen izendapen-egitama.

6. atala.– Honakoak dira unibertsitez kanpoko irakaskuntzako programazio orokorrerako kontsulta, partaidetza eta aholkularitzako organoak:

a) Euskadiko Eskola Kontseilua.

b) Lurralde Kontseiluak.

c) Bilguneetako Eskola Kontseiluak.

d) Udal Eskola Kontseiluak.

I. IZENBURUA

EUSKADIKO ESKOLA-KONTSEILUAZ

7. atala.– Lege honetan esaten diren alderdiei buruzkoan, Euskadiko Eskola-Kontseilua da unibertsitatekoaz besteko irakaskuntzako egitaraugintza orokorrarekin zerikusirik duten gizarte-sailen partaidetzarako eta Eusko Jaurlaritzak salo egin edo eman beharreko lege-egitasmo, erabaki nagusi eta araudiei buruzko aholkuak emateko eta urgazlaritzarako goren-mailako ihardutze-saila.

8. atala.– Lehendakariak, Lehendakariordeak, Kontseilariak eta Idazkariak osatuko dute Euskadiko Eskola-Kontseilua.

9. atala.– Lehendakaria, kontseiluko kideen artetik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza-Sailburuak izendatuko du. Kargu hori hutsik, edo Lehendakaria kanpoan edo gaisorik izatea gertatuz gerokotarako, horren ordezkotza egingo duen Lehendakariordea ere izendatuko du eta Lehendakariak esku eman diezazkion ahalmenak izango ditu.

10. artikulua.– Honako hauek izango dira Euskadiko Eskola Kontseiluko kide:

– Euskadiko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako sei irakasle, irakasleen asoziazio eta sindikatuek, bakoitzaren ordezkotza-mailaren arabera, proposatutakoak.

– Euskadiko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleen sei guraso, ikasleen gurasoen konfederazioek edo federazioek izendatutakoak, beren ordezkagarritasun-mailaren arabera.

– Euskadiko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako sei ikasle, ikasleen konfederazioek edo federazioek, asoziazio edo elkarteek proposatuta, bakoitzaren ordezkagarritasun-mailaren arabera.

– Administrazio eta zerbitzuetako langileen bi ordezkari, sindikatuek ordezkagarritasun-mailaren arabera proposatutakoak.

– Ikastetxe pribatuen bi ordezkari, haien antolakundeek duten ordezkagarritasunaren arabera proposatutakoak.

– Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari bat, Hezkuntza fakultateetako batekoa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak izendatua.

– Langileen sindikatuen hiru ordezkari eta enpresa-antolakundeen beste hiru, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan duten ordezkagarritasun-mailaren arabera.

– Hezkuntza Administrazioaren lau ordezkari, hezkuntza-alorrean eskumena duen sailburuak izendatutakoak.

– Hezkuntza-eremuan izen handia duten lau pertsona, hezkuntzaren alorrean eskumena duen sailburuak izendatutakoak.

– Euskadiko toki-administrazioaren sei ordezkari, Euskadiko udalerrien elkarte edo federazioek beren ordezkagarritasun-mailaren arabera proposatutakoak, betiere, lurralde historiko bakoitzeko ordezkari bana, gutxienez, bermatuz.

– Euskadiko Gazteriaren Kontseilu Nagusiaren ordezkari bat.

– Irakaskuntzako kooperatiben ordezkari bat, irakaskuntzako kooperatiben federazio nagusikoa.

– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendarien elkarteetako ordezkari bat.

Atal honetan aipatzen diren asoziazio, korporazio eta elkarten ordezkagarritasun-maila balioztatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan duten eragina izango da soilik kontutan.

11. atala.– Norbanako-jabetzapeko eta herri-mailako irakaskuntza-maila eta sare ezberdinek heineango partaidetza izatea bermatzeko, aurreko ataleko aurreneko hiru zatietan oharteman-dako ordezkarien banaketa araudi-bidez zehaztuko da.

12. atala.– Euskadiko Eskola-Kontseiluko kideak, 10 atalean aipatzen diren saloak, hala behar izanez gero, jaso ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza-Sailburuak izendatuko ditu.

13. atala.– Kontseiluak Teknika-Idazkaritzaren ardura ere bere gain hartuko duen Idazkaria izango du. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza-Sailburuak bere Sailari atxikitako lanarien arte-tik aukeratuko du.

14. atala.– Euskadiko Eskola Kontseiluari derrigorrez eskatu beharko zaio aholkua ondorengo gaietarako:

- a) Irakaskuntzaren programazio orokorrerako.
- b) Hezkuntzarako eskubidea benetan gauzatzeko, irakaskuntzaren askatasunari eta Konstituzioaren 27. atalean herri-aginteei ezartzen zaizkien betebeharrei zuzenean eragiten dieten lege-aurreproiektu eta erabaki orokorren proiektuetarako.
- c) Ikaspostuak sortu, kendu eta aldatzeko irizpideetarako.
- d) Ikastetxeak hornitu eta eraikitzeko arau orokorretarako.
- e) Euskal Autonomi Elkartean oinarrizko curriculum-diseinuak arautzen dituzten arau orokorretarako.
- f) Pedagogiazko programak eta orientabideak berritu eta esperimentatzeko planetarako.
- g) Irakaskuntza-maila bakoitzeko eredu-eraketako hizkuntza-helburuak eta hizkuntza-ereduen eskaintzaren plangintza egiteko oinarrizko irizpideak finkatzeko.
- h) Ekintza berdintzaileak eta hezkuntza-integrazioa bideratzeko oinarrizko irizpideetarako.
- i) Helduen etengabeko hezkuntzari buruzko oinarrizko helburuetarako.
- j) Gizarteak hezkuntza-elkarteari egin diezazkion osagarritzko prestakuntza-eskaintzei erantzuteko oinarrizko helburuak eta bateratzeko irizpideak zehazteko.
- k) Giza baliabideekin eta hauek prestatzeko eta hobetzeko beharrekin zerikusirik duten langilego-politikari buruzko oinarrizko irizpideetarako. Hezkuntza-sistemaren gainontzeko baliabideak bidezko eta erabat aprobetxatzeko oinarrizko irizpideetarako.
- l) Aukera-berdintasunerako ihardueraren, ekintza berdintzaileen eta hezkuntza-integrazioko ekintzen oinarrizko irizpideetarako.

15. atala.– Euskadiko Eskola-Kontseiluak, bere arioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza-Sailari, aurreko atalean zehaztutako gaiari eta Euskal Herriko Autonomi Elkartearen esparruan irakaskuntzarekin zerikusirik izan dezan beste ezein gairi buruzko saloak egin ahal izango dizkio.

Halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza-Sailak iritzia emateko aurkeztu diezaion eta irakaskuntza-alderdiekin zerikusirik izan dezan beste ezein gairi buruzko txostena egingo du.

16. atala.– Euskadiko Eskola-Kontseiluak, urteoro, bere ekintzei buruzko altzinak emaneko txostena eta irakaskuntzaren Euskadiko Autonomi Elkarteango egoeraren argipide-txostena egin beharko du.

17. atala.– Euskadiko Eskola-Kontseiluak arauzko Osoko bilkura, euskal hezkuntza-moduaren egoerari buruzko urtean-urteko txostena onartzeko, urtean behin egingo du, baita Lege honekin bat etorritz arauzko argipideak eman behar ditzan edo bere agintepeko gaiei buruzkoan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza-Sailak iritzirik eska deiezaion guztietan ere. Bertako kideen herenak eska dezan guztietan ere bilduko da.

II. IZENBURUA

LURRALDEETAKO ESKOLA-KONTSEILUEZ

18. atala.– 1.– Lurraldeko eskola-kontseiluak irakaskuntzaren programazio orokorrak ukitutako sektoreen partaidetza-organo dira kondaira-lurraldeen eremuan, eta baita lege honetan aipatzen diren erabaki eta hitzarmenak egitean ere.

2.– Bilguneetako eskola-kontseiluak araudiz arautuko dira, eta eskola-bilgunearen eremuan unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren programazio orokorrak hartzen dituen arloen aholku- eta partaidetza-organo izango dira. Bilguneetako eskola-kontseiluak, Euskadiko Eskola Kontseilua osatzeko partaidetza-irizpideen arabera osatuko dira.

Bilguneetako eskola-kontseiluei nahi eta nahi ez galdetu beharko zaie Lege honetako 4. atalean jasotzen diren gaiei buruzko eritzia, Bilgunean bertan gai horiei buruzko erabakiak hartzeko orduan.

19. atala.– Lurraldeetako Eskola-Kontseiluak Kondaira-Lurralde bakoitzean eratuko dira eta Lehendakariak, Lehendakariordeak, Kontseilukideek eta Idazkariak osatuko dituzte.

20. atala.– Lehendakariak eta Lehendakariordeak, dagokion Lurraldeko Hezkuntzako Lurralde-Ordezkararen saloz, Kontseilu bakoitzeko kideen artetik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza-Sailburuak aukeratuko ditu.

21. atala.– Lurraldeetako Eskola-Kontseiluetako Idazkariak, Hezkuntzako Lurralde-Ordezkari bakoitzaren saloz, Sailari atxikitako lanarigoaren artetik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza-Sailburuak aukeratuko ditu.

22. artikulua.– Honako hauek izango dira lurralde historiko bakoitzeko eskola-kontseiluko kide:

- Lurraldeko unibertsitatekoaz besteko irakaskuntzako hiru irakasle.
- Lurraldeko unibertsitatekoaz besteko irakaskuntzako ikasleen hiru guraso.
- Lurraldeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako hiru ikasle.
- Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
- Ikastetxe pribatuen ordezkari bat.
- Langileen sindikatuen ordezkari bat eta enpresa-antolakundeen beste bat, beren ordezkagarritasunaren arabera.

- Lurralde historikoko udalen bi ordezkari.
- Foru Aldundiaren ordezkari bat.
- Hezkuntza Administrazioaren bi ordezkari.
- Lurralde historikoko irakaskuntzako kooperatiben ordezkari bat, irakaskuntzako kooperatiben federazio nagusikoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendarien elkartearen ordezkari bat.

23. atala.– Aurreko atalean oharmandako ordezkarien saloak Lege honetan Euskadiko Eskola-Kontseiluko kideak aukeratzeko jarritako irizpideak Kondaira-Lurraldeen eremura mugatuz egingo dira.

24. atala.– Ondoren ematen direnetarako arauzkoa izango da Lurraldeetako Eskola-Kontseiluei iritzia eskatzea:

- Osagarritarako ekintzetarako helburuak, lehentasunak eta baliapideak zehazteko.
- Lanbide-gaikuntzan hasteko egitamuen helburuak, lehentasunak eta eskuarteak zehazteko.
- Horiek eskolaratzeko garraio-sareak, eskolako jangu-zerbitzuak eta laguntzen banakuntza zehazteko saloekiko.
- Kondaira-Lurraldeko eremuan osagarritarako ekintzapideen egitaraugintzarako.
- Ihardutze-eremuz Kondaira-Lurralderako izan edo Foru-Diputazioa partaide izango deneko hezkuntzako zaingo-batzorde, bazkun eta erakundeak eratzeke.

25. atala.– Lurraldeetako Eskola-Kontseiluak arauzko Osoko bilkura, euskal hezkuntza-moduaren egoerari buruzko urtean-urteko txostena onartzeko, urtean behin egingo dute, baita Lege honekin bat etorritz arauzko argipideak eman behar ditzan edo bere agintepeko gaiei buruzkoan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza-Sailak iritzirik eska deiezaien guztietan ere. Bertako kideen herenak eska dezan guztietan ere bilduko dira.

26. atala.– 1.– Lurraldeetako Eskola-kontseiluek hezkuntza-arduralaritzako lurralde-mailako ihardutze-sailei, hauei buruz ebazpena emateko gai direneko ezein gairi buruzko saloak egin ahal izango dizkiete.

2.– Halaber, Kondaira-Lurraldeen eremuari doakion, eta Lege honetan agintzen denez, argipideak emateko edo saloak egiteko Euskadiko Eskola-Kontseiluak ahalmena izan dezaneko ezein gairi buruzko saloak horri egin ahal izango zaizkio.

3.– Lurraldeetako Eskola-Kontseiluek hezkuntza bere lurralde-eremuan aurkitzen deneko egoerari buruz urteoro argipide-txostena egin, eta hezkuntza-arduralaritzako lurralde-mailako ihardutze-sailei eta Euskadiko Eskola-Kontseiluari bidaliko diote.

III. IZENBURUA

UDALETAKO ESKOLA-KONTSEILUEZ

27. atala.– 1.– Unibertsitatekoaz besteko irakaskuntzaren udal mailako egitaraugintza doakien alorren partaidetzarako eta aholku emateko ihardutze-erakunde dira Udaletako Eskola-Kontseiluak.

2.– Bere dirubideak herri-dirutatikakoak izanezko OHO-ko bi ikastetxe gutxienez dauden Udaltan, Udal-mailako Eskola-Kontseilua eratuko da. Gainontzekoetan nahi bada eratuko da.

28. atala.– Alkatea edo honek esku eman diezaion Zinegotzia izango dira Udaletako Eskola-Kontseiluburu.

Udalek eurek finkatuko dute bakoitzaren udalerriko Eskola-Kontseiluko kide izango direnen kopurua; horrek bederatzitik behera eta berrogeitik gora gabekoa izan beharko du; Kontseilu horretan gizarte-sail ezberdinek izango duten partaidetza ere finkatuko dute, irakasle, ikasle, ikasleen guraso eta arduralaritzako eta zerbitzuetako lanariak, denen artean, kontseilukideen ehuneko hirurogeitabosteko ordezkotza gutxienez izan beharko dutela.

Geratzen den ehuneko hogeita hamabostekorako herri-ikastetxeetako eta dirubideak herri-dirutatikakoak dituzten norbanako-jabetzapeko ikastetxeetako arduradunen ordezkotzaren partaidetza bermatuko da.

Hezkuntza-arduralaritzak noiznahi hautatu ahal izango du, Udaletako Eskola-Kontseiluetarako, hizpidea, bai, baina boto-eskubiderik gabeko ordezkari bat.

29. atala.– Ondoren ematen direnetarako arauzkoa izango da Udaleko Eskola-Kontseiluari iritzia eskatzea:

- Udal mailan eskola-tokiak sortzeko, kentzeko eta aldatzeko, eta bai ikastegiak eraberritzeko ere.
- Garbikuntza, bere onean eusteko, zaintze, antolapideak eraberritze-alorrean, etabarrekikoan, ikastetxeen ihardunari doazkien udal ekintzei buruzkorako.
- Zenbait gaitan, hona nola, hezkuntza bereziari, haurrak eskolaratzeari helduen etengabeko gaikuntzari, osagarritzako eta eskola-orduetatik kanpoko ekintzapideei, araupean gabeko irakaskuntzari buruzkoetan eragina duen irakaskuntzari buruzko udal-mailako ihardupide de erabakiei buruzkoan.
- Gizarteak hezkuntza-elkarteari egin diezazkion gaikuntzarako eskaintzak elkarri egokitu eta sartzeari buruzkoan.
- Hezkuntza-beharren nongoari, eskaintzaren lurralde-mailako banakuntzari eta ikasleak eskolaratu ahal izateko banakuntzarako irizpideak zehazteari buruzkorako.
- Osagarritzako hezkuntzaren alorreko ekintza-egitamuari buruzkorako.
- Ihardutze-eremuz udalerako izan edo Udala partaide izango deneko hezkuntzako zaingo-batzorde, bazkun eta erakundeak eratzeko.
- Hezkuntza-agintariak eta/edo udal agintariak aurkeztu diezazkieten beste ezeinetarako.

30. atala.– 1.– Udaletako Eskola-Kontseilu bakoitzak bere Udalari, hauek haiei buruz erabakirik hartzeko ahalmena duteneko hezkuntza-alorreko ezein gairi buruzko saloak egingo dizkio.

2.– Halaber, egoki izan dadin Lurraldeko Eskola-Kontseiluari, bakoitzaren udal-eremuari doazkionak izan eta, Lege honetan agintzen denez, argipideak emateko edo saloak egiteko hark gaitasuna izan dezaneko ezein gairi buruzko saloak egin ahal izango dizkio.

3.– Udaletako Eskola-Kontseiluek euren lurralde-eremuan hezkuntza aurkitzen deneko egoerari eta Udalaren jabetzapeko ikastetxeak zuzkiketa eta zaingo-aldetik aurkitzen direnoko egoerari buruzko txostena urteoro egin eta bakoitzari dagokion Udalari eta Kondaira-Lurraldeko Eskola-Kontseiluari bidaliko diote.

ERABAKI OROKORRA

- 1.– Eskola-Kontseiluen aginte-aldia lau urtekoa izango da.
- 2.– Duten ordezkartzaren ondorioz Eskola-Kontseiluetako kide direnek, euren taldeen ordezkari izateari uzten dioten une berean utziko diote kontseilukide izateari.
- 3.– Eskola-Kontseiluek beren ihardunerako araudiak Lege honetan ezarritako araei jarraiki egingo dituzte.
- 4.– Eskola-Kontseiluek beren ihardunean aritzeko, hezkuntza-Arduralaritzari eta Udalekoari argipideak eskatu ahal izango dizkiete.
- 5.– Herri-Arduralaritzek Eskola-Kontseiluei gauzazko eta dirubidezko eskuarteak eskuratuko dizdiete, baita Lege honetan finkatutako egitekoak aurrera eraman ahal izateko behar hainbateko gizakizko eskuarteak ere.

ALDI BATERAKO ERABAKIA

Ikastolak herri-ikastetxe bilakatzeko Eusko Legebiltzarrak legez jarri dezan aldia amaitzean, horietako arduradunentzat Lege honetan ohartematen den berarizko ordezkotza ondorio guztietarako ezabatuta geldituko da.

AZKEN ERABAKIA

Jaurlearitzari, Lege hau egiteratu eta osabideratzeko beharrezko izan daitezen manuak emateko baimena ematen zaio.

Vitoria-Gasteiz, 1988.eko azaroak 16.

Lehendakariordea,
RAMON JAUREGUI ATONDO.